# PRA · BJA



# 2005

El mercado de trabajo en la C.A. de Euskadi-2005

Lan-merkatua Euskal AEn-2005

## La ocupación de 2005 asciende a 941.200 personas y la tasa de paro se sitúa por debajo del 6%

En 2005 continúa la línea de los últimos años de aumento del número de ocupados y disminución del número de parados respecto al año anterior.

## 2005. urtean 941.200 landun izan ziren eta langabezia-tasa %6tik beherakoa izan zen

2005. urteak azken urteotako bideari jarraitu zion. Izan ere, landunen kopurua handitu egin zen eta langabeena jaitsi, aurreko urtearen aldean.

**Euskal AEko lan-eskaintzaren zifrak. 2005/2004**

Cifras de oferta de trabajo en la C.A. de Euskadi. 2005/2004

| | 2004 | 2005 |
|---|---|---|
| **16 urte eta gehiagoko biztanleria** / Población de 16 y más años | 1.819.700 | **1.821.700** |
| **Biztanleria aktiboa** / Población activa | 1.007.800 | **998.200** |
| **Biztanleria landuna** / Población ocupada | 929.200 | **941.200** |
| **Biztanleria langabea** / Población parada | 78.600 | **57.000** |
| **Biztanleria ez aktiboa** / Población inactiva | 812.000 | **823.400** |
| **Aktibotasun-tasa** / Tasa de actividad | 55,4 | **54,8** |
| **Langabezia-tasa** / Tasa de paro | 7,8 | **5,7** |

**Iturria**/Fuente:**EUSTAT**

Durante 2005 la cifra media de ocupados en la C. A. de Euskadi ha sido de 941.200 (+1,3%). La población ocupada ha aumentado en los tres Territorios Históricos. En términos relativos destaca el aumento de Gipuzkoa (+2%), seguido por el de Álava (+1,6%), y el de Bizkaia (+0,8%).

2005ean, Euskal Autonomia Erkidegoko landunen batez besteko kopurua 941.200ekoa (%+1,3) izan zen. Landunen kopurua hiru lurralde historikoetan gehitu zen: balio erlatibotan Gipuzkoako igoera nabarmendu zen (%+2), haren atzetik Arabakoa (%+1,6) eta azkenik Bizkaikoa (%+0,8).

## El sector servicios absorbe la creación de empleo

El volumen de ocupados por sectores económicos aumenta sólo en el sector sevicios, en donde asciende en 23.800 personas y en términos relativos un 4,1%. La agricultura y pesca pierde 4.900 empleos, sigue la industria con 3.600 menos y por último la construcción con 3.200.

Atendiendo a la situación profesional, aumenta el número de asalariados y el de autónomos en un 2,1% en ambos casos. Sin embargo, el número de cooperativistas desciende de forma notable (-28,5%), así como el de empleadores (-4,4%).

Respecto al género, el colectivo de mujeres ocupadas se incrementa un 1,5%, con 5.800 empleos netos más, y el de los varones un 1,2%, con 6.300.

## Zerbitzuen sektoreak enpleguaren sorrera hartu zuen

Sektore ekonomikoak aintzat hartuta, landunen bolumena zerbitzuen sektorean bakarrik igo zen: 23.800 landun gehiago izan zen, %4,1 balio erlatibotan. Nekazaritzak eta arrantzak 4.900 enplegu galdu zituzten, industriak 3.600 eta azkenik eraikuntzak 3.200.

Lanbide-egoerari dagokionez, soldatakoen eta autonomoen kopurua %2,1 gehitu zen. Alabaina, kooperatibisten kopurua nabarmen gutxitu zen (%-28,5) eta enplegatzaileena gutxitu egin zen (%-4,4).

Generoaren ikuspegitik, emakume landunak %1,5 gehiago izan ziren, 5.800 enplegu garbi gehiagorekin; gizon landunak %1,2 gehiago izan ziren, 6.300 enplegu garbi gehiagorekin.

**16 urte eta gehiagoko biztanleria landunaren bilakaera. Euskal AE. 2004-2005. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)**
Evolución de la población de 16 y más años ocupada. C.A. de Euskadi 2004-2005. Promedios anuales. (En miles)




**Iturria**/Fuente: **EUSTAT**

## Desciende el número de ocupados con contratos temporales un 3%

Por otro lado, dentro de los asalariados, el número de los contratados indefinidamente aumenta en un 5,3% en este año, mientras que el de los contratados temporales desciende un 3%. Por ello, la tasa de temporalidad entendida como la proporción de contratados temporales sobre el total de asalariados, 25,6 %, resulta algo inferior a la de 2004 (-1,4 puntos porcentuales).

## Aldi baterako kontratua duten landunen kopurua %3 gutxitu zen

Bestalde, soldatakoen artean kontratu mugagabedunak %5,3 gehiago izan ziren urte horretan; aldi baterako kontratua dutenak, aldiz, %3 gutxiago izan ziren. Ondorioz, denbora-tasa (aldi baterako kontratuen ehunekoa soldatako guztiekin alderatuta) %25,6koa izan zen, 2004. urtekoa baino pixka bat txikiagoa (ehuneko -1,4 puntu).

**Soldatako guztiak aintzat hartuta aldi baterako kontratatu direnen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera 1994-2005. Euskal Autonomia Erkidegoa urteko baten bestekoak. (Ehunekotan)**
Evolución de la proporción de contratados temporalmente sobre el total de asalariados por sexo 1994-2005. C.A de Euskadi. Promedios anuales (En porcentajes)




**Iturria**/Fuente: **EUSTAT**

La proporción de asalariados contratados temporalmente sobre el total de los asalariados por sexo, para los varones, es la más baja de los últimos diez años (23,2%) y, para las mujeres, -a pesar de haber descendido respecto al año anterior (-1,4%)- se encuentra en el 28,8%.

El diferencial de la tasa de temporalidad por sexo aumenta en 0,9 puntos porcentuales, de 4,7 puntos a 5,6 con respecto al año anterior.

## La tasa de paro baja del 7,8% al 5,7%

Junto con el aumento de la ocupación en el año 2005 se produce un descenso del número de parados en unos 21.600 respecto a 2004, un 27,5% menos. La tasa de paro se reduce al 5,7%, lo que supone 2,1 puntos porcentuales menos que en 2004.

El número de parados desciende en los tres territorios históricos: en Gipuzkoa 10.800, en Bizkaia 6.300 y en Álava 4.500 parados menos. La tasa de paro de 2005 en Álava desciende al 3,1%, en Gipuzkoa al 4,2% y en Bizkaia al 7,4%. Álava, que era el Territorio con mejor tasa de paro en 2004, continúa la tendencia en 2005 con 3 puntos porcentuales menos, Gipuzkoa desciende 3,2 puntos y Bizkaia reduce 1,1 puntos porcentuales.

## La brecha de la tasa de paro por sexo se reduce a 2,3 puntos porcentuales

En 2005 ha descendido el número de mujeres paradas en 11.200 y el de los varones en 10.500. En términos relativos, el número de mujeres paradas ha descendido un 27,5% y el de los varones el 27,7%. La tasa de paro masculina desciende al 4,7% y la femenina desciende al 7%.

El diferencial de la tasa de paro por sexo se reduce en 0,8 puntos porcentuales, de 3,1 puntos a 2,3 con respecto al año anterior.

Sexuaren arabera, aldi baterako kontratu diren soldatakoen ehunekoa soldatako guztiekin alderatuta gizonen ehunekoa azken hamar urteetako txikiena izan zen (%23,2) eta emakumeena -aurreko urtean baino txikiagoa izan arren (%-1,4)- %28,8koa izan zen.

Sexuen araberako denbora-tasaren diferentziala 0,9 puntu gehitu zen aurreko urtearen aldean: 4,7 puntukoa zen eta honetan 5,6 puntukoa.

## Langabezia-tasa %7,8tik %5,7ra jaitsi zen

Okupazioaren igoerarekin batera, 2005. urtean 2004an baino 21.600 langabetu gutxiago egon zen, hau da, %27,5 gutxiago. Langabezia-tasa %5,7ra jaitsi zen eta, beraz, 2004. urtean baino ehuneko 2,1 puntu gutxiago izan zituen.

Hiru lurralde historikoetan jaitsi zen langabeen kopurua: Gipuzkoan 10.800 langabe gutxiago izan zen, Bizkaian 6.300 gutxiago eta Araban 4.500 gutxiago. 2005. urtean Arabako langabezia-tasa %3,1era jaitsi zen, Gipuzkoakoa %4,2ra eta Bizkaikoa %7,4ra. 2004.urtean Araba izan zen langabezia-tasa txikiena izan zuen lurraldea eta 2005. urtean joera horri eutsi eta ehuneko 3 puntu gutxiago izan zituen; Gipuzkoak ehuneko 3,2 puntu gutxiago izan zituen eta Bizkaiak 1,1 puntu gutxiago.

## Langabezia-tasaren sexuaren araberako aldea ehuneko 2,3 puntura murriztu zen

2005.urtean 11.200 emakume eta 10.500 gizon gutxiago zegoen langabezian. Balio erlatibotan, langabezian zegoen emakumeen kopurua %27,5 murriztu zen eta gizonen kopurua %27,7. Gizonen arteko langabezia-tasa %4,7ra jaitsi zen eta emakumeena %7ra.

Sexuen araberako langabezia-tasaren diferentziala 0,8 puntu murriztu zen aurreko urtearen aldean: 3,1 puntukoa zen aurreko urtean eta honetan 2,3 puntukoa.

## Disminuyen el 50% los parados que buscan su primer empleo

Disminuye el número de parados en todos los grupos de edad estudiados: de 16 a 24 años (-42,6%), de 25 a 44 años (-22,7%) y, de 45 y más años, el que incluye menor número de parados, un 24,6%. La tasa de paro juvenil desciende al 13,5%, 7 puntos inferior a la de 2004.

Destaca el descenso del número de parados que buscan el primer empleo, que se reducen a la mitad, concretamente 5.200 parados.

## Lehenengo lanaren bila ibili ziren langabetuen kopurua %50 gutxitu zen

Aztertu diren adin-talde guztietan gutxitu zen langabetuen kopurua:16-24 urteko taldean (%-42,6), 25-44 urteko taldean (%-22,7) eta 45 urteko eta gehiagoko taldean; hain zuzen, azken talde honetan egon zen langabetu gutxiago, %24,6. Gazteen langabezia-tasa %13,5era jaitsi zen, 2004koa baino 7 puntu txikiagoa.

Lehenengo lanaren bila ibili ziren langabetuen kopurua erdira jaitsi zen, 5.200 langabetu egon baitzen.

**16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera. Euskal AE. 2004-2005. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)**

Evolución de la población de 16 y más años parada. C.A. de Euskadi. 2004-2005. Promedios anuales (En miles)




Iturria/Fuente:**EUSTAT**

## La tasa de actividad femenina resulta todavía inferior a la de la Unión Europea de los 25 y a la media española

Desde un punto de vista comparativo, se producen algunas diferencias entre los indicadores del mercado de trabajo de la C.A de Euskadi en 2005 y de la Unión Europea, con los 25 países (los últimos datos disponibles corresponden a promedios anuales de 2004).

La tasa de actividad vasca para la población de 16 y más años resulta ser algo inferior a la del promedio europeo (54,8% y 56,7%, respectivamente), mientras que la de los varones en ambos casos son casi iguales (65,3% y 65,2%). Sin embargo, la tasa de actividad femenina europea es 3,8 puntos superior a la de la C.A. de Euskadi (48,7% y 44,9%, respectivamente).

Además, la tasa de actividad femenina vasca, siendo más baja que la europea, resulta ser también más baja (un punto y medio) que el promedio de España.

## Emakumezkoen aktibotasun-tasa 25 kidekun Europar Batasunekoa eta Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa izan zen

Alderatze-ikuspuntutik, aldeak izan ziren 2005eko Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuari buruzko adierazleen eta 25 herrialdeen Europar Batasuneko adierazleen artean (eskura ditugun azken datuak 2004ko batez bestekoak dira).

EAEko 16urteko eta gehiagoko biztanleen aktibotasun-tasa Europako batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa izan zen (%54,8 eta %56,7, hurrenez hurren); aitzitik, gizonezkoen kasuan ia tasa berdinak eman ziren (%65,3 eta %65,2). Hori gorabehera, Europako emakumeen aktibotasun-tasa Euskal Autonomia Erkidegokoa baino 3,8 puntu handiagoa izan zen (%48,7 eta %44,9, hurrunez hurren).

Gainera, gure erkidegoko emakumeen aktibotasun-tasa Europakoa eta Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa (puntu eta erdi) izan zen.

## La tasa de paro femenino en la C.A. de Euskadi se sitúa por debajo de la del conjunto del Estado y de la Unión Europea

Respecto a las tasas de paro, y en comparación con la Unión Europea (2004), la tasa de paro promedio de los 25 países es 3,4 puntos porcentuales superior a la de la C.A. de Euskadi.

Las tasas de paro de la C.A. de Euskadi son más bajas que en el promedio de España y de la Unión Europea, destacando las diferencias con la tasa española de paro femenino (5,2 puntos menos) y la tasa de paro masculino, 2,3 puntos inferior.

En comparación con el resto de las Comunidades Autónomas, la tasa de paro de la C.A. de Euskadi ocupa el primer lugar junto con Navarra (5,7%) en el ranking de menor a mayor tasa. Aragón, La Rioja y Madrid les siguen en las primeras posiciones con tasas del 5,9%, 6,2% y 6,8% respectivamente.

## Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen langabezia-tasa Estatukoaren eta Europar Batasunekoaren azpitik egon zen

Gure langabezia-tasa Europar Batasunekoarekin alderatuz (2004), 25 herrialdeen batez besteko langabezia-tasak Euskal Autonomia Erkidegokoa baino ehuneko 3,4 puntu handiagoa izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasak Espainiako eta Europar Batasuneko batez bestekoak baino txikiagoak izan ziren. Nabarmendu egin ziren, gainera, Espainiako emakumeen langabezia-tasarekiko (5,2 puntu gutxiago) eta gizonen langabezia-tasarekiko (2,3 puntu gutxiago) izan ziren aldeak.

Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa txikienetik handienera doan tasen rankingean lehenengo postuan egon zen Nafarroarekin (%5,7) batera. Horien atzeko postuetan Aragoi (%5,9), Errioxa (%6,2) eta Madril (%6,8) egon ziren.

**Aktibotasun- eta langabezia-tasak Europar Batasunean (25), Espainian eta Euskal AEn (%tan)**
Tasas de actividad y paro en la Unión Europea 25, España y C.A. de Euskadi (En %)




**Iturriak**/Fuentes:EUROSTAT: EFT 2004 INE: EPA 2005; **EUSTAT: BJA**/PRA 2005

## La proporción de contratados temporales entre los asalariados de la C.A. de Euskadi (25,6%) sigue siendo superior a la existente en la UE-25

En el campo de la ocupación se sigue produciendo una diferencia muy notable en cuanto a la estabilidad en el empleo. Según la última Encuesta de Fuerzas de Trabajo de Eurostat (2004), en el promedio de los 25 países europeos, algo más de uno de cada 10 asalariados tienen un contrato temporal (13,7%) y, en general, en todos los países esta proporción resulta inferior al 20%, salvo en España (32,5%) y Polonia (22,7%).

## Euskal Autonomia Erkidegoko soldatakoen artean aldi baterako kontratuak dituztenen proportzioa (%25,6) 25-EBekoa baino handiagoa da oraindik

Okupazioaren arloan, oraindik ere alde oso nabarmena dago enpleguaren egonkortasunari dagokionez. Eurostatek egindako lan-indarren azken inkestaren arabera (2004), Europako 25 herrialdeen batez bestekoaren 10 soldatakotik bat baino zerbait gehiagok (%13,7) aldi baterako kontratua izan zuen, eta orokorrean, herrialde guztietan proportzio hori %20tik beherakoa izan zen, Espainian (%32,5) eta Polonian (%22,7) izan ezik.

## GLOSARIO

**Población activa:**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia aportan un trabajo para producir bienes y servicios (población ocupada), y las que carecen de empleo en ese momento, lo buscan activamente y están disponibles para incorporarse a él (población parada).

**Población ocupada:**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia han estado trabajando durante al menos una hora, a cambio de una retribución (salario, jornal, beneficio empresarial, etc.) en dinero o especie o sin retribución como ayuda familiar. También son ocupados quienes teniendo trabajo han estado temporalmente ausentes del mismo por enfermedad, vacaciones, etc.

**Población parada.**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia no poseen un empleo asalariado o independiente, han buscado uno de forma activa en las últimas cuatro semanas y están disponibles para trabajar en las siguientes dos semanas.

**Población inactiva.**

Población que no está ocupada ni parada; incluye a las personas que realizan las tareas del hogar, los que cursan estudios, los jubilados, los pensionistas, los rentistas y los incapacitados.

**Tasa de actividad de un grupo.**

Proporción de activos sobre la población de 16 y más años de ese grupo. EUROSTAT calcula las tasas de actividad para la población de 15 y más años.

**Tasa de paro de un grupo.**

Proporción de parados sobre el total de activos de ese grupo.

## GLOSATEGIA

**Biztanleria aktiboa**:

16 urteko eta gehiagoko biztanleria da, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko erreferentziako astean lan egiten dutenak (biztanleria landuna) eta momentu honetan lanik ez dutenak, lan bila aktiboki dabiltzanak eta lanerako prest daudenak (biztanleria langabea).

**Biztanleria landuna**:

16 urteko edo gehiagoko pertsonak, aipatu astean zehar gutxienez ordu betez lan egin dutenak dirutan edo gauzatan emandako ordainsari baten truke (soladata, egunsari, enpresa-onura, e.a) edo ordainsaririk gabe familia-laguntza gisa. Langile bezala hartzen dira, halaber, lana edukita gaixotasuna, oporrak edo beste zerbait dela medio lanera aldi batean joan ez diren pertsonak.

**Biztanleria langabea**:

16 urteko edo gehiagoko biztanleria, erreferentziako astean soldatako lanik edo lan beregainik izan ez, azken lau asteetan aktiboki lan bila ibili eta hurrengo bi asteetan lan egiteko prest dagoena.

**Biztanleria ez-aktiboa**:

Landuna edo langabea ez den biztanleria; hor sartzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak.

**Talde baten aktibotasun-tasa**:

Aktiboen kopurua, talde bateko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean. EUROSTATek 15 urte eta gehiagoko biztanleriarentzako kalkulatzen ditu aktibotasun-tasak.

**Talde baten langabezia-tasa**:

Langabe-kopurua, talde horretako aktiboen guztizkoaren aldean.

*La Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) es una operación estadística que viene realizándose por **Eustat** desde 1985. Tiene por objeto fundamental producir información continua sobre la oferta del Mercado de Trabajo de la C.A. de Euskadi. Trimestralmente da cuenta de la población ocupada, parada e inactiva, así como de sus variaciones y de las principales características sociales de estos colectivos.*

*Los datos de la PRA están sujetos a errores de muestreo derivados de la utilización de una muestra formada por 5.088 familias de la C.A. de Euskadi, a las que se encuesta cada trimestre, formando un panel. Los errores de muestreo de la PRA están en www.eustat.es a disposición de los usuarios interesados. El Coeficiente de Variación de la estimación de la población ocupada es 1,2% y de la población parada es 4,4%. Como consecuencia, los límites del intervalo de confianza son 918.600 y 963.900 para la población ocupada y, 52.000 y 61.900 para la población parada (datos de 2005, a un Nivel de Confianza del 95%)*

*Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA), **Eustat**ek 1985etik egiten duen estatistika--eragiketa da. Helburu nagusitzat dauka Euskal AEko lan-merkatuaren eskaintzaren gaineko aldian behingo informazioa eskaintzea. Hiru hilean behin, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren berri ematen du, bai eta talde horien gorabehera nagusien eta gizarte-ezaugarrien berri ere.*

*BJAren datuak laginketa-akatsei atxikita daude, Euskal AEko 5.088 familiek osatutako lagin baten erabilpenagatik ateratako akatsei, hain zuzen. Familia horiei hiru hilean behin egiten zaie inkesta, panela osatuz. Interesa duten erabiltzaileek www.eustat.es helbidean lor ditzakete BJAren laginketa-akatsak. Biztanleria okupatuaren gaineko zenbatespenaren aldakuntza-koefizientea %1,2 da eta langabetuena %4,4. Ondorioz, landunen kontiantza-tartearen mugak 918.600 eta 963.900 dira eta langabetuenak 52.000 eta 61.900 (2005eko datuak, %95eko konfiantza-mailarekin).*


**INFORMAZIO-ESKAERA** / SOLICITUD DE INFORMACIÓN

**Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:**

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:

**EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea** / Instituto Vasco de Estadística)

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 75 00

Fax: 945 01 75 01

e-mail: eustat@eustat.es

www.eustat.es

Eustat

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO